

Zenbait gogoeta

• JOSE LUIS ALVAREZ ENPARANTZA 'TXILLARDEGI' •

[IDAZLEA]

El *Estado de Derecho no está en tregua* entzun dugu behin eta berriz.

Eta errepikapen nekagaitzaren ondorioz, sinetsi egin dute azkenean gure arteko txepelenek.

Baina, lehenengo eta behin, eta euskal hiritarroi dagokigunez, Euskal Herrian ez dago *Eskubide Estaturik*, eta *Demokraziarik* ere ez. Herri gisa bizitzeko eskubidea denoi ukatzen zaigulako.

«*Le premier droit d'un peuple est d'être souverain*», dio Edmond Jouve jurista famatuak. Alegia, herri oren lehenengo eskubidea bere buruaren jabe izatekoa dela.

Areago: «*le droit des peuples et des nations à disposer d'eux-mêmes est une condition préalable de la jouissance de tous les droits fondamentaux de l'homme*». Euskara arruntez: herrien Auto-Determinazio eskubidea dela funtsezko eskubide guztien alde-aurreko baldintza (*Le Droit des Peuples*, 79, 108).

Hortaz, zer *Estado de Derecho*, zer *Demokrazia*, eta zer debru? Euskal Herrian zapalkuntza-egoera dago, borobila; baina moztortua. Bai Iparraldean, bai Hegoaldean. Auto-Determinatzeko eskubidea ukatzen baitzaigu euskaldunoi.

Problema, beraz, Espainia da. Ez ETA. Problema nagusia, eta gainerako guztien iturburua, okupazio franko-españolada.

Euskal Herriarrok, beste edozein herriarrok hiritarrek bezalaxe, politikoki geure buruaz jabetzeko eskubidea dugu. Nazio bat gara, eta geure Estatu propioa eraikitzeko proiektua zilegi dugu, eta arrunt demokratikoa.

Eskubide hori (Armada osoaren mehatxu konstituzionalaren pean) ukatzen diguten bi Estatuak dira Eskubide-

tik at daudenak. Ez gu.

Donostian, beraz, Savaterrek eta gainerako ultra-nazionalista espānoiek antolatutako manifestazio erraldoiak, garbi utzi zuen zertan garen denok.

Oldar ultra-nazionalistaren bizkar hezurra PSOEk eta PPK osatzen dute. Benetako *Fronte inter-clasista* eginik, Rodríguez Zapatero, Felipe González eta Múgica Herzog *ezkertarrek* ez dute batera ahalkerik erakutsi Aznar, Mayor Oreja eta Fraga *eskuindarrekin* eskuz esku gure kontra agertzeko eta jokatzeko.

Espainiar Fronte horri politikoki egokiro erantzungo bazaio, Fronte Abertzaleaz egin behar zaio aurre. Alegia, PNV, EA, HB eta ABk elkar hartuz eta borroka bateratua eginez. Mundu guztian egin den bezala.

Lizarra-Garazi Akordioa ez da Fronte Abertzalea. Aski da puntuak eta sinatzaileen zerrenda berrirakurtzea.

Lizarra-Garazi gain-elkarketa bat da. Geografikoki *la región vasco-navarro-aragonesa* gain-eskualde bat izan daitekeen plegukoa. Lizarra-Garazi pausu bat da (*Irurac Bat* murriztaile famatuaz bestaldekoa). Ez du Euskal Herriaren lurraldetasuna zatikatzen, ez murrizten.

Mota bertsuko elkarketa da Lizarra-Garazikoa. Kide guztiak ez dira abertzaleak, baina abertzale guztiak dira multzoko kide. Urrats gaitza.

Bi modu daude nagusiki Lizarra-Garazi ukatzeko.

Bata Mayor Oreja-ren bidetik: «*destruyamos ese pacto anti-español*».

Bestea, berriz, beste hau: «ezar ditugun oinarritzat PNVak eta EAK sekula onartuko ez dituzten baldintzak».

Lehenengo bideak ez du gure artean tirabira larririk sortzen. Abertzale garenok

begi onez ikusten ditugu Lizarra gain-abertzalea, eta Fronte Abertzalea bera ere bai: elkar osatzaile, eta bi maila desberdinetako tresna gisa.

Baina honetaz gero, borrokabideen eztabaidara iristen gara ezinbestean. Eta badugu garaia honetaz ere solastatzen hasteko.

«Bide instituzionaletatik aurrera egiterik ez badago —entzuten dugu geure inguruan— egurra!». Egurrak, edozein egurrek, hobe, etsaiari kalte eta guri mesede ekarriko digun segurantzian. «Borroka politiko-militarra da bidea», hitz batez ...

Hots, hauxe behar da zalantzan jarri.

Azkeneko hilabete hauetan, eta menia hautsi zenez geroztik, eta arazoa *etxetik*, eta hozki aztertu duten abertzale fin eta sinesgarri askoren ustez, burututako ekintza ilara horrek balantze ezkorra eskaini du. Oro har, azkeneko oldarraldiak PPri, PSOEri, eta espānolismoari egin die mesede; eta ez guri. Eta ez, beranduegi ikusiko denez, boto mailan bakarrik.

Gaur egun galtzaile politikoen bortxa politikoa oso prentsa txarra du Europan; eta borroka egiten dutenen kausa bera erabat izkututzen. (Irabazleenak ez, jakina; baina gu oraingoz galtzaileen multzoan gaude).

Irabazle bortxazaleak (Francisco Franco gogorazi beharko ote?) paliopean erzebitzen dira betidanik. Galtzaileak ez. Hau hitsa da, baina egia hutsa da.

ETAK azkeneko aste hauetan *eman duen egurra*, esamolde herrikoia erabiliz, eta *kale-borroka* famatua, oro har, noren alde gertatu dira? Hauxe da egin beharreko galdera.

Izan dezagun adorea egia aitortzeko: ez dira gure alde gertatu. Espānolisten

blokea gotortu dute; eta abertzaleona zaitu, pozoindu eta erraustu.

Azken hilabeteotako zampaketa franko-español gupidagabeak leherketara eramanez gudarriak. Nola ez ulertuko? Nola ez konprenituko presoeren tragedia?

Eta gudarriek hamua irentsi dute. Eta menia hautsi.

Baina 15 hilabetetako epea, luzea izan arren, ez zen aski, ene ustez, gero ikusi ditugunak ekartzeko eta bedekatzeko. Hozitzen hasia zen abertzaleon arteko elkarretak denbora hori eta gehiago merezi zuen. Gosta ahala gostarik, abertzaleon arteko elkarlana, Lizarra-Garazi eta Udalbiltza baitziren (eta baitira) ezinbesteko bidea.

Baina probokatzalea eta eskubideen zapaltzailea Espainia da, ez ETA. Hemen inor gaitzestekotan, Madrile behar da gaitzetsi. Eta Parise. Ez zapalketari ahal bezala, eta itsumustuka askotan (eta desegokiro azkeneko bolada honetan), eta sofrikari ikaragarritan, erantzuna ematen saiatzen diren aberkideak.

Hori esan ondoren, ordea, hau ere esan behar da: hilabete hauetako ekintza ilarak ezinezko egiten eta egingo duela abertzaleon arteko elkarlana, eta Lizarra-Garazi koloka jartzen eta jarriko.

Zeren truke dena hankaz gora? Hauxe da galdera. Gure arteko haserre hazkorren truke ote?

Fronte Abertzalea ezinezkoa da meniarik gabe. Egia. Baina Fronte Abertzalea ez da inoiz abertzaleen arteko lan-akordio sendorik gabe piztuko.

Eta Lizarra-Garazi eta Udalbiltza ere ez.

Korapilo zaila, noski.

Baina mataza askatu gabe, irtenbiderik ez.

Gogoratu

• JOXE IRIARTE 'BIKILA' •

[ZUTIK-EKO KIDEA, EHKO BILTZARKIDEA]

Hilabete batzuk lehenago Barcelonan harrapatu zuten ETA poli-milien taldekoko partaide Jon Paredes Manot *Txiki*-rentzat heriotz zigorra eskatzen dute, atrako batean polizia bat hil izana leporatzen baitiote.

Burkidea duen Angel Otaegi, eta FRAP erakundeko Baena, Garcia Sanz eta Sanchez Bravo borrokalariak ere, heriotz zigorraren arrisku larrian daude.

Epaiketaren egunean Barcelona polizia jositako agertu da. Koyote eta biok Paralelora agertu gara zer-nolako giroa dagoen ikustera. Etorbidean ia jenderik ez da ikusten. Baretasun itogarria, sargoritsuak da nagusi. Urduri jartzen nau hilerriko sasi-bakeak!

Ikusten diren gizaki bakanak, uniformedun edo uniforme gabeko poliziak dira, eta furgoneta grisak gora eta behera.

Eta Euskadin? Herriak kalean borrokatuko ote du garai batean bezala?

Guardia zibil baten hiltzailearen laguntzaile izateagatik hil dute Otaegi Burgoen. Exekuzio tropelaren partaideak

polizia nazionalak dira. Justizia-ekintza hotzez, mendeku asmotan eror ez daitezten egiten omen dute hori.

Txikirekin beste horrenbeste. Honi, polizia espainiar bat hiltzea leporatu diotenez, guardia zibilak izan dira Can Amateko zelaietan Txikiren gorputza zulatu dutenak.

Dena itxurakeria hutsa da! Bertan egon direnek esan dutenez, txapeloker bakoitzak tiro bana bota diote. Madrilen besten horrenbeste egin dute Baena, Sanchez Bravo, eta Garcia Sanzekin. Gaurkoan tristurak gaintu nau eta ohean etzanda negarrari ezin eutsiz madarikazioka lasaitu naiz. Nire idazkera trakestez idatzi dut:

Txiki hil dute. Sei, sei, guardia zibil bolidresen tiro banak zulatu diote bihotza. Sei, sei mila, hogeitasei mila guardia zibil amorratuak beraien tiro partikularra eman diote. Hiru milioiren bihotzak zulatu nahi izan dituzte!

Garbi gera bedi! Banaka, banaka. Des-karga itxiaren danbadaren oihartzun bu-

runbatsuren anonimatoan bere burua ezkutatu baino, tiro tartekatuaren hots lehorraz adierazi nahi izan dute, banaka zurrupatu nahi zutela Txikiren odola, bere bihotz borrokalari sei zulutik hustu dutenean.

Hala ere, madarikatu horiek ez dute ikusi Txikiren aurpegian espero zuten izua, beraien mutur-okerraren irribarrea sorraraziko zuena.

'Gora Euskadi Askatuta! Gora herri zanpatuen elkertasuna!' izan dira Txikiren azken hitzak. Eta Eusko Gudariak abesteari ekin dionean abaildu dute!

Horrela jaso nuen *Borroka* gorrian oroimen liburuan, nola bizi izan nuen Kataluniako lurretan, Txiki, Otaegi eta FRAPeko hiru kiden afusilaketa. Egun gogorrrak bezain esperantza garriak ziren haiek. Franco diktadore zaharra bere azken hatsetan zegoen, eta odolez idatzitako testamentutzat har zirakeen hilketa haiekin adierazi nahi zigun *dena ondo lotuta* uzten zuela.

Ez zen horrela izan, gure herriak ez

zuen amore eman eta aldaketa franko egitera behartu zuen. Alabaina, gauzak gutxitan izaten dira dena zuri edo dena beltz, eta aitortu behar dugu ere, hainbeste maite zuen armada espainiarren mehatxuaren eraginez, eta partidu politikoa nagusien koldarkeriari esker, ez zuela hainbeste huts egin, horren isla izanik lau urte geroago hautatu zen konstituzioa. Han argi eta garbi idatzita dago Espainia bat eta bakarra izateaz gain, nazio zatiezina dela, armada izanik bere berme garrantzitsuena.

Eta horregatik gabiltza gabiltzan bezala.

Hala ere, onerako edo txarrerako, denbora ez da alferrik pasatzen. Mundua asko aldatu da azkeneko hogeita bost urtetan, eta Euskal Herria ere bai. Arazo batzuek lehengoak izaten jarraitzen dute, beste asko ez. Batean zein bestean, gauzak beste erara ikusten eta sentitzen dira. Eta horrek, planteamenduetan zein borrokatzeko eran aldaketak egitera behartzen gaitu.